



EBAZPENA, 2022ko abenduaren 13koa, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, komunitateko konpost-instalazio eta -jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituen dekretuaren proiektuaren entzunaldiko eta jendaurreko informazioko izapidea egiteko dena.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko maiatzaren 12ko Aginduaren bidez, komunitateko konpost-instalazio eta -jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituen dekretu-proiektua egiteko prozedurari ekin zitzaion.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8.1 artikularen arabera, herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute; era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen duenean, jendaurrean jarri beharko dira.

Era berean, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko maiatzaren 12ko Aginduaren arabera, komunitateko konpost-instalazio eta -jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituen dekretu-proiektua herritarrei entzuteko izapidearen mende jarriko da, eragindako herritarrak biltzen edo ordezkatzeko dituzten eta xedapenaren xedearekin zuzeneko lotura duten erakunde eta elkarteentz bitartez, arauaren izaera aintzat hartuta, uste baita hori dela bide egokia entzunaldi-izapidea egiteko. Era berean, dekretu-proiektua jendaurrean jarriko da.

Azaldutako guztiagatik, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren 7.h) artikulua zuzendari-kargua duten pertsonen ematen dien eskuduntzari jarraikiz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidearen mende jartzea komunitateko konpost-instalazio eta -jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituen dekretuaren proiektua, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Aurreko atalean xedatutakoaren ondorioetarako eta alegazioak aurkezteko, komunitateko konpost-instalazio eta -jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituen dekretu- proiektuaren testua eskuragarri egongo da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hasiera/>) eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/ekonomiaren-garapen-jasangarritasun-ingurumen-saila/>).

Gasteiz, 2022ko abenduaren 13a.

Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaria  
Javier Aguirre Orcajo

